

OCIO Y CULTURA

"Kritikak egiteko askatasuna dut; eta uste dut euskal literaturari mesede egiten diodala"

Edorta Jimenez idazle bizkaitarrak 'Stock 13' lana kaleratu du Txalaparta argitaletxe nafarraren zigilupean. Liburuan sexuaz, erotismoaz eta pornografiaraz mintzatu da naturaltasun osoz. Honekin batera, beste hainbat gairen inguruan idatzitako hausnarketak bildu nahi izan ditu.

ARKAITZ A. MURO - Lunes, 18 de Enero de 2010 - Actualizado a las 10:04h.



Edorta Jimenez, Irati Jimenez idazlearen aita, Bizkaiko idazle nagusienetakoa da. (JOSEBA BARRENETXEA)

"Gogoak eman didana kontatu dut". Edorta Jimenezek askatasunez idatzi du Stock 13 liburua. Gainera "mozorroa kenduta", Mundakako idazleak ez du inolako arazorik izan bere barneko munduko atek irakurleari zabaltzerakoan. Izan ere, lan honek bere sexu bizipenak biltzen ditu, zenbait gairen inguruko hausnarketekin batera. Azken aste honetan, gainera, liburuan biltzen duen iritzi baten harira, Edorta Jimenezen izena hamaika lekutan ageri da entzungai eta irakurgai.

Atzeko egun hauetan ETB-1 kateko Sautrela saioan egin zenituen adierazpenak dabilta bolo-bolo. Izan ere, elkarrizketa honetan euskal literatura "usteldua" dagoela eta "kiratsa" dariola esan zenuen.

Nire iritziak Nabarra aldizkariaren azken aleetan argitaratuta daude, eta lehenago ere Txalaparta argitaletxearen Hitzak y Ideiak aldizkarian. Ez da ezer berria. Galdera ba-tzuk egin nituen eta erantzun ba-tzuen zain nago. Ez ziren galdera erretorikoak izan. Lehenengo aldiz saio honetan galdera hauek egiteko aukera izan nuen, eta euskal literaturaren barruan nork duen boterea, nork eman dion ahalmen hori, boterea zertarako erabiltzen den eta erabakigunea non dagoen galdetu nuen. Durangoko azokan hedabide batek egin zidan elkarrizketa batean euskal literatura ustelduta dagoela, kiratsa dariola eta euskal idazleok ez gara salatzaera ausartzen esan nuen. Orduan inork ez zidan erantzun. Sautrela saioa izan zen egin zidaten hurrengo elkarrizketa, eta etikak tabuen kontra jo dut. Frantziako literatura miresten dut. Frankismoaren eragina nolakoa izan den ez gara ohar-tzen. Egin ditudan aitortpenak ez ulertzen sortu den eskandalua.

Eta erantzunik jaso al duzu?

Ni Mundakan bizi naiz, eta nire kontaktu bakarra literaturarekin Interneten bidezkoa da. Lasai bizi naiz, pozik bizi naiz nire bizimoduarekin, askatasuna daukat galderak egiteko, kritikak egiteko eta nire iritziak emateko; eta uste dut hau egitean euskal literaturari eta gizarteari mesede egiten diodala.

Zure ustez, orduan, zer da euskal literaturak behar duena?

Euskal literaturan eragile nagusiak garen idazlearen artean erabaki beharko genuke, baina idazleok hutsaren hurrengoak gara, salbuespenak salbuespen. Nik ez dut esango euskal literaturak zer behar duen eta zer ez, gehiegi izango litzateke. Nire iritziak publikoak dira, beste kontu bat da nork zer irakurtzen duen. Baina literaturan botereak erabiltzea ez da zilegizkoa. Hortik aurrera bakoitzak esango du. Nik galdera batzuk egin ditut argi dagoelako gure literaturaren sistema esku gutxi batzuen menpe dagoela; eta hauek ez direla hain zuzen idazleak.

Argitaratu berri duzun liburuari dagokionez, aipatzen duzun burufikzioaren itzalean, zure sexu bizipenak izan dituzu lanaren abiapuntu. Nahiko ausarta izan zara, ezta?

Nik ez dakit zer den ausarta izatea eta zer kontatu al den eta zer ez. Gogoak eman didana kontatu dut. Urteak daramat erotismoaren inguruan gogoetak egiten. Euskadi Irratian erotismoari buruz hitz egin izan dut arratsaldeko 16.00etan, haurrek entzuteko orduetan. Tabua urratu beharra zegoen. Sukaldariak zelan sukaldatzen duten kontatzen dute, eta inor ez da harritzen. Joxean Azurmendik ere bostehun orrialde eskaini dizkio Gandiagari, eta inor ez da eskandalizatzen. Hemen dirudenez sexua da eskandalua sortzen duena. Stock 13 gogoeta askoren ondorioa da, eta liburuan tabuen kontra jo dut. Frantziako literatura miresten dut. Frankismoaren eragina nolakoa izan den ez gara ohar-tzen. Egin ditudan aitortpenak hutsaren hurrengoak izango ziren, besteak beste, Georges Bataille idazleak idatzitakoaren aldean. Nire lana eskandalua izango litzateke gure euskal literatura eta euskal gizarte nolakoak diren jakinda, baina, bestela, normaltasunaren adibide hartu beharko litzateke. Askok eskerterik egon beharko lukete tabua urratu dudalako.

Stock 13 liburua ez du aurretik egin duzun lanarekin zer ikusia. Orain arte lan egiteko izan duzun modua erabat aldatu duzu. Zergatik?

Egia da, ez du zer ikusirik. Beharbada Mirande Kabaretaren ondorengo gogoeta da, izan ere, honek idazteko eta hitz egiteko askatasuna eman dit. Lehen kalitatezko literaturari lotuagoa nengoen. Nik euskarazko literatura gaztelaniaz edo frantsesez egin daitekeen maila berean egin nahi izan dut, hitzez hitz itzultzeko modukoa. Eta hau ez da normala euskal literaturan. Hau egin ondoren, erabateko askatasunez idaztea pentsatu dut. Hori horrela, orain arte idatzitakoarekin ez du zer ikusirik. Baina gaiaren inguruan, ordea, bai. Izan ere, nire

liburu guztietan, baita itsasoko liburuetan ere, azpiko korranteen inguruko kezak biltzen ditut.

Zurekin batera emakumeak dira liburuko protagonistak. Non hasten da fikzioa eta non errealitatea?

Hori da idazle guztioi egiten zaigun galdera. Askoz ere larriagoa dirudi galderak tartean tabupeak bizipenak daudenean. Dena dago mozarrotuta. Bizitzatik paperera pasatzean inor ez da inoiz errealitatean dena.

Zergatik kostatzen da oraindik euskal literaturan pornografiak, sexuak eta erotismoak hitz egitea?

Nire liburuan porno poetikoa lantzen dut, hitzei ematen diet garrantzia. Honekin batera salaketa bat egiten dut. Nola da posible pornoak Amerikako Estatu Batuetako saskibaloian, beisbolean eta errugbian, hiru kirol nagusietan, mugitzen den diru kopurua baino gehiago mugitzea? Nork arraio kontsumitzen du hori? Martitzeko biztanleek? Euskal gizartea apaiztegiz, komentuz eta misiolariak betetik egotetik Gobernu Kanpoko Erakundeak beteta egotera pasa da. 40 urteotan euskarazko gizartean gertatu den aldaketarik handiena apaiztegiak eta Elizak ustu egin direla izan da. Badirudi katolikotasunaren fama ez dela erantzi. Eta honek, bere puritasmoarekin, pisu handia dauka euskal gizartean.

Uste duzu liburu honek, aipatzen dituzun tabuak apurtuta, gure literaturan lantzen diren gaiak alda ditzazkeela?

Nik estigma bat daukat gainean, eta nire liburua seguruenik ez da inorentzako existituko. Ez dut uste ezer aldatuko duenik. Lehen sotanen eta abituden azpian prakak eta gonak zeuden. Orain praken eta gonan azpian sotanak eta abituak daude. Nik hauek desagertzea nahiko nuke gazteek idazteko askatasuna izan dezaten. Sexuak hitz egiten duten liburuak, aukeran, bide bat dira; baina literaturak bide asko ditu. Hau bat da, eta garrantzitsua askatasunez erabiltzea da. Ez da derrigorrez guztiek erabili beharreko bidea, baina libre izatea inportantea da. Nik nire ekarpenak egin ditut. Euskal literaturaren munduan ere badira beste ekarpen interesgarriak, baina bilduma hau ezkutuan egon denez beste lanak ez dira aipatu. Stock 13 lana irakurri duten askok idatzi didate esanez ez zutela liburua horrelakoa espero. Iritzi onak jaso-tzen ari naiz, oso pozik nago lanarekin.

Liburuan ez zara bakarrik sexuak mintzo, beste gai batzuen inguruko hausnarketak ere bildu dituzu.

Bai. Zineak, gizarteak, munduko literaturak, zentsurak, James Joycen inguruan nire idazle maitea burufikzioak eta abar hitz egiten dut. Liburuaren lerroak umorea, ziriak, pozoia, barrea eta jolasak dira. Lan hau tradizio batean kokatu beharko banu, Gargantuaren eta Pantagruelen tradizioan kokatuko nuke. Nire inguruko guztiaz barre egin dut eta baita nire buruz ere.

Askatasunak hitz egiten duzu, liburuaren azala sortzerakoan ere askatasunez egin duzu.

Begia mindu egin behar da libreagoa izateko. Liburuaren azalak begiren bat mindu badu, mindu den hori askeagoa izango da; aurrerantzean ez du min bera izango. Lily amorantearen azalak, esaterako, aztertzen baditugu, ikusiko dugu historia zehar argitaratzaileak beti ibili direla zentsuraren ertze ertzean. Telebistan elkarrizketa egin zidaten, eta liburuaren azala ez zen ia ia agertu. Azala ikusten dugu eta Q letra ikusten dugu. Baina, zer ikusi du Q letrak liburuak barruan ekartzen duenarekin? Ez dut uste azalekoa argazki pornografikoa denik!

Ez zara kritikoen laguna...

Ofizialena ez. Nik hedabideetan irizpideak idazten dituztenak errespetatzen ditut, neuk ere idatzi izan ditudalako. Iaz, Ispiluaren kalteak liburuari buruz oso kritika ezkorra agertu zen, eta ni isildu egin nintzen. Haratago, Beñat Sarasola elkarrizketatu nuen irratian, laguntzat daukat, eta behin idatzi egin nion. Eskutitz honetan esan nion askatasuna duela nahi duena idazteko, eta ni ez nintzela hasiko esaten zer ida-tzi behar duen eta zer ez. Aldi berean honakoa esan nion: "Momentu honetan, 2009an, euskal literaturan idazleren bat edo beste ibili da hedabideetan presioa egiten kritikak aldekoak izan daitezen". Ez dut izen bat esango. Sekulan ez naiz horra iritsi, eta ez naiz iritsiko. Beste kontu bat da gure literaturaren ordezkaritza alde batera eta bestera eramaten dutenek zer gaitasun daukaten kritikarako.

Aurrera begira, zeintzuk dira buruan dituzun proiektuak?

Nik barre egiten dut liburuak planifikatzen dituztenez, idaztearen nekeak idazten dutenei buruz... Gogoak ematen didanean idazten dut, eta orain ez daukat proiekturik. Omar Nabarrok (bere goitizena) poesia liburu bat aterako du, horretan nabil. Posible badut idazten jarraituko dut, baina, Ispiluaren kalteak lana argitaratu nuenean esan nuen bezala, agian erretiratu egingo naiz.

¡Hecho!



Recibirás un e-mail para confirmar tu registro.

Enseguida te devolvemos a la página en la que estabas donde verás tu comentario publicado

-
-
-

• © Zeroa Multimedia

-
-
-